

txintxarri



Aurrez aurre

EH Bilduko, Ahal Du Lasarte-Oria Pudedeko eta EAJko ordezkariak pentsiodunen galderari erantzun diete Okendo plazan / 6-7

TXINTXARRI

Toponimia, sarean

Lasarte-Oriako Udalak webgunea abiatu du, lkermapek egindako leku izenen azterketarekin / 8-9

Froilan Elespe
omendu dute,
PSEko zinegotziaren
hilketaren
18. urteurrenean / 2

Kultura kalera atera
dute: Kukukak
antzerki eguna ospatu
du, eta kontzertuz
bete dute Okendo / 4-5

UDAKO TXOKOAK 2019

Herria, udara, euskara

Aurtengoan ere hamaika sorpresa

Espazioak: TTAKUNENA eta ORIARTE

HH3tik LH6ra bitarteko haurrentzat, hiru programaziotan banatuta

- Psikomotrizitate saioak.
- Sukaldaritza tailerrak, ur jolasak, eskulanak...
- Festak eta jaialdiak.
- Gorputz adierazpenaren bidez mundu berria eraikiko dugu.
- Irteerak igerilekuetara eta hainbat bisita gidatu.
- Gure begiraleekin jostakirola saioak.

plazak
%50 ONLINE
%50 BULEGOAN
Gehienez 4
izen emate
pertsonako

Matrikulazio epea:
Apirilaren 1etik 16:00etatik aurrera
TTAKUN K.E. bulegoan edo online



Hilerrria bete zuten Lasarte-Oriako zinegotzia izandakoaren lagun eta senideek. TXINTXARRI

Froilan Elespe omendu dute 18. urteurrenean

Duela hemezortzi urte hil zuen ETak Froilan Elespe alkateordea. Urtero legez, zinegotzi izandakoaren ahaideak eta ordezkari sozialistak Illarraltzueta hilerrian elkartu dira, omenaldia egiteko. Froilan Elespe VII. saria jaso du Lasarte-Oriako Bizikidetzak Taldeak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Froilan Elespe 2001eko martxoaren 20an tiroz hil zuen ETak. Orduz geroztik, Lasarte-Oriako alkateorde eta alderdi sozialistako zinegotzi izandakoaren ahaide eta lagunak eta PSE-EEko ordezkariak Illarraltzueta hilerrian elkartzen dira urtero Elespe omentzeko. Bertan egon ziren Euskadiko PSE-EEko idazkari nagusi Idoia Mendia, Gipuzkoako idazkari nagusi Eneko Andueza eta Lasarte-Oriako alkate Jesus Zaballo, besteak beste. Tomasi Pelaz alarguna eta Josu eta Andoni semeak ere joan ziren.

Minutu bateko isilunea gorde aurretik, Anduezak hartu zuen hitza. Realaren oso zalea zen Elespe, eta futbol taldeari buruz hitz egiten ekin zion ekitaldiari Gipuzkoako PSEko idazkari nagusiak: "Lasai egon zaitezke, Froilan [Elespe], Reala ongi ari da eta".

EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakari Joseba Egibarrek asteon egindako adierazpen batzuk ere izan zituen hizpide Anduezak. "Ezin da onartu Egibarrek egindako konparaketa: Generalitateko presidente Quim Torrararen xingola horiak eta bere garaian euskal gizarteak erabili zituen xingola urdinak, ETari geratzeko

eskatzeko. Bere ustez, adierazpen askatasunaren adibide dira biak".

Froilan Elespe saria

Hilerritik jaitsi eta Lasarte-Oriako PSEren Herriko Etxera joan ziren omenaldian parte hartu zuten pertsonetako asko. Duela zazpi urtetik Froilan Elespe saria banatzen dute herriko alkateorde izandakoaren familiakoek. Lasarte-Oriako Bizikidetzak Taldeak jaso du aurtengo saria, hunkituta. Hamabi pertsonak osatzen dute lantaldea.

Mari Karmen Ormazabalek hitz egin zuen taldearen izenean, euskaraz. "Harriduraz" hartu zuen Bizikidetzak Taldeak saria jasoko zuenaren notizia. "Ez genuen uste

gure lanak horrenbesteko proiektzioa izango zuenik. Oso pozik gaude, eta oso eskertuta. Bihotzez onartzen dugu". 2014ko urrian hasi zen lanean talde hau, "ezberdinen arteko elkarriketa espazio bat" osatzeko asmoz. "Biolentziak gure herrian eragindako zaurien inguruan zintzo hitz egitea eta errespetuz entzutea da asmoa".

Hainbat biktimaren senideekin bilera sorta bat egin du lantaldeak. Tartean, Froilan Elesperen semeetako batekin elkartu dira, Josurekin. Solasaldiak "oso hunkigarriak" izan direla azpimarratu zuen Ormazabalek. "Familia guztiek asko sufritu dute, baina inork ez dauka mendeku goserik. Mirestekoa da hori".



Lasarte-Oriako Bizikidetzak Taldeko kideak, PSE-EEko ordezkariakin. TXINTXARRI

Lore azoka, bihar, Okendon

Udalak eta Behemendi elkarteak antolatuta, lore eta landare azoka egingo dute bihar Okendo plazan, 10:00etatik 14:30era. Hamahiru postuetan sendabelarrak, loreekin egindako artisautza eta kosmetika ere salgai jarriko dituzte. Halaber, gaztetxoentzat bi tailer prestatu dituzte: prentsaturako loreekin eskulanak, 11:30ean; eta landareak landatzen ikastekoa, 12:30ean.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Herriko komertzioak, pasarelan

Modaren bueltan lan egiten duten herriko hainbat komertzioak eta Aterpea merkatarik elkarteak antolatutako desfileak Manuel Lekuona kultur etxea hartu zuen larunbatean. Gonbidapenak bezperetan agortu ziren eta lepo zegoen. Dinamikoa izan zen dendarien eta modeloen joan-etorria: bost bat minutuko bina txanda egin zituen parte hartu zuen hamar saltokietako bakoitzak.



JUANJO MARTIN

Gipuzkoako nota altuena

Jon Martin lasarteoriatarak lortu du BAME (Barne Medikuko Egoiliar) azterketako Gipuzkoako nota onena. Gainera, EHUko Medikuntza eta Erizaintza fakultateko ikaslea Espainiako 50 emaitza onenen artean dago, zehazki, 34. postuan. Azterketak ospitaletako mediku egoiliar gisa espezializazio bat ikasteko aukera ematen du.



Pailazoak, Lasarte-Oriako Jalguneko kideekin, ikuskizun batean. TXINTXARRI

Agirretxe eta Bizipoza saritu ditu GaituzSportek

Donostiako Kursalen jasoko dute aitortza, apirilaren 4an. Kirol arlotik kanpo "aniztasuna eta inklusio soziala" lantzeagatik sarituko dituzte. 34 elkartek osatzen dute Bizipoza; euskara abiapuntu hartuta, ikusezin diren errealitateak lantzen dituzte

Adrian Garcia

Umorea tresna indartsua da bidegabekeriei aurka egiteko. Filosofia hori buruan ekin zioten Lasarte-Oriako pailazoek ibilbideari orain 32 urte. Bide horretan mugarri izan zuten inklusioaren alde lan egiten dute elkarteekin saretzea. "Euskaratik abiatuta, mundua guztiontzat izateko lan egin dugu. Horretarako sortu genuen Bizipoza elkarte", kontatu dio Joxe Mari Agirretxek TXINTXARRI-ri. Orain, lan horren aitortza jasoko dute, apirilaren 4an; GaituzSport saria irabazi dute Agirretxek berak eta Bizipoza elkarteak, "aniztasuna eta integrazio soziala lantzeagatik, eta elkarten eta familien alde lan egiteagatik". Donostiako Kursalen egingo dute ekitaldia.

GaituzSport Fundazioak eta Kirol Egokituko Euskal Federazioak antolatuta dute ekimena, Kirol Egokituko Gipuzkoako Federazioaren laguntzarekin. Kirol arlotik kanpoko jardura inklusiboan

atalean jasoko dute saria Lasarte-Oriako pailazoek.

Gizartean ikusezin diren errealitateak jaso nahi dituzte pailazoek, eta hori lortzeko jarri ziren harremanetan elkarteekin. "Ez zara konturatzen existitzen direnik ere, zerbait larria gertatzen zaizun arte", esan du Agirretxek. Mundua ikusteko modua aldatu diete elkarte horiek. "Guretzat oso garrantzitsua izan da haien baloreak transmititzea".

34 elkarterekin batera

Eginkizun horretarako sortu zuten Bizipoza elkarte. Izaera bereziko gaiak landu eta haur eta familien ongizatea helburu du, eta 34 elkartek osatzen dute. Besteak beste, Aspanogi, Gehituz, Ademgi eta Arnasak. Errealitate asko tratatzen dituzte elkarte horiek, hala nola, gaixotasun arraroak, gaitz larriak, sindromeak, familia ereduak, inklusio soziala, migrazioa, kooperazioa... Zailtasunak dituzten familiekin eta

elkarteekin batera poza partekatzea du ardatza Bizipozak, euskara eta sorkuntza abiapuntutzat jarrita.

"Munduak guztiontzat izan beharko luke, baina sindrome batekin jaio den baten eskubideak beti ez dira errespetatzen. Kulturari, kirolean eta eskolan bizimodu duin bat behar du". Horren alde egiteko bidea zein den argi du Agirretxek: "Munduko gaitzei aurre egiteko txertorik baliotsuena bizipoza da".

Agirretxerekin batera Katziporretako lantaldea joango da Kursalera saria jasotzera. "Taldea handia dugu pailazook atzean, eta talde osoak du Bizipozaren begirada barneratuta". Saria Lasarte-Oriako inklusioaren alde lan egiten dutenekin nahi dute partekatu. "Lan ezin hobea egiten dute Ostadarrek eta Jalguneko elkarteak. Haien barruan bizi dituzten aniztasuna, elkarbizitza, errespetua, zaintza eta besteekiko konpromisoa eredu garriak dira".



GORKA LASA

Bakardadea

Inkomunikazio egoeratik datorren sentipena eta izaera da bakardadea. Jende inguratuta egon arren, bakarrik sentitzea eta ondoan inor ez izateagatik bakarrik egotea.

Adina aurrera doan heinean pairatzen den egoera dela uste dugu gehien bat, hain zuzen, belaunaldikideak urritu ahala, bakarrik geratzeko aukera handitu egiten baita. 65 urtetik gorako herritarren artean oso ohikoa da bakardadea, baina, tamalez, gero eta gazte gehiago sentitzen dira egoera horretan.

Gizakia animalia soziala da. Komunitatea behar du bizi izateko, maitasuna, entzungo gaituen norbait, eta Smartphone edo ordenagailu batek nekez ordezkatuko du hori. Inoizko garairik konektatuenean inoiz ez bezalako bakardaderik handienean bizi da gizakia; ikusi besterik ez dago autobus barruan irudikatzen dugun argazki edo irudia: bakoitza bere munduan sartuta doa. Gizarte gero eta indibidualizatu honetan, bata bestearekin komunikatzeko eta harremanak izateko gero eta zailtasun handiagoak antzematen hasiak dira; depresioak, beldurrak eta arazo psikologikoak areagotu egin omen dira.

Azken urteotako eraldaketa birtual bortitz honek inguratzen dituen mundua arrotzago bihurtu die adineko pertsonari, inkomunikazioak bakardadea areagotu du eta.

Gizakiok afektibitate erreala behar dugu eta ez birtuala.



TXINTXARRI

Errigorako otarren irabazleak

Ttakan Kultur Elkartean aste honetan banatu dituzte zozketatutako Errigorako otarrak. Bi zozketa egin dira. Bata, euskara elkartearen bazkide direnen artean. Horretan Arkaitz Urdapilletak irabazi du. Bestea, TXINTXARRI-ren irakurleen artean egin da, eta Andrea Suarezegi egokitu zaio Errigorako otarra. Erriberako produktu naturalak biltzen ditu otarrak, eta lurralde horretako euskalgintzarako jasotzen da dirua.



Pailazo talde bihurri eta koloretsua, aterkiaren azpian sartu nahian. TXINTXARRI



Larunbat arratsaldean irten ziren kalera Kukuka eskolako ikasle eta irakasleak. TXINTXARRI



Lasarte-Oriako kaleak hartu ditu antzerkiak

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideek gogotik ospatu dute Antzerkiaren Nazioarteko Eguna. Kalez kale emanaldiak eskaini dituzte, familia guztiarentzako tailer bat egin Sasoetan, eta Patata Tropikalaren 'Pirata Garrapata' emanaldia Gaztelekura ekarri



Iñigo Gonzalez Sarobe

Lasarte-Oriako kaleak oholta bihurtu ziren pasa den larunbat arratsaldean. Herenegun, hilak 27, Antzerkiaren Nazioarteko Eguna ospatu zuen munduak. Kukuka eta Antzerki Dantza Eskolak aurreko asteburura aurreratu zituen ospakizunak, beti irrikitan egoten direlako kultura eta antzerkia gure herriko kale, txoko eta bazter guztietara helarazteko.

Familia guztiarentzako tailerra egin zuten larunbat goizean, Sasoetako gimnasioan. Aiton-amona, guraso eta haur, primeran pasatu zuten guztiek, eta antzerkiaren unibertso zabalean murgildu ziren. Gaztelekuan ere gozatu ederra hartu zuten etxeko txikienek. Pirata Garrapata bihurriaren abenturek aho-zabalik utzi zituzten gaztetxoak. Patata Tropikala konpainiak oholzaratu zuen ikuskizuna.

Kukuka eskolako ikasle eta irakasleek kaleak hartu zituzten

arratsaldean. Mimoz zihoazen batzuk, ertzainez eta guardia zibilez beste batzuk, aiton-amona raperoak ere animatu ziren, pailazoak ere bai... Kuadrilla bitxia, baina dibertigarria eta bihurria.

Okendo plazatik abiatu zen antzezle gudarostea. Ahaten parke alboko plazatxoan egin zuten aurreneko geldialdia. Guardia zibilek erakutsi zuten nola egin behar den kontrol bat errepidean. Ondoren, aiton-amona raperoek kontzertutxo bat eskaini zuten, telebistako epaile famatu eta guzti. Ahateen parketik, Elizatze plazara. Pailazoen koloreztatu zuten inguru gris hori. Beste antzezle talde batek telebistako lehiaketa

ASTEAZKEN HONETAN OSPATU DUTE ANTZERKIAREN NAZIOARTEKO EGUNA HERRIALDE ASKOTAN

bat parodiatu zuen, ikus-entzuleen algara artean.

Jaizkibel plazan eta Oriarte institutu parean antzeztu ostean, Okendo plazara bueltatu ziren, zazpiak baino lehenxeago. Talde guztiek emanaldi bana eskaini zuten. Ondoren, irakasleek manifestu bat irakurri zuten. Carlos Celdran zuzendari eta irakasle kubatarrak idatzi du testua aurtengo Antzerkiaren Nazioarteko Egunerako. Iñaki Iñurrieta idazle eta itzultzaileak euskaratu du.

"Antzerkia herrialde bat da"

Celdranek dio "lurralde handi bat" dela antzerkia, "herrialde bat". Kontzeptu hori barneratu zuenean aldatu egin zen berak antzerkitzat ulertzen zuena. "Ez duzu zauden lekutik urrundu edo mugitu beharrik, lasterka egin edo lekuz aldatu beharrik. Zu non, hantxe daude ikus-entzuleak. Ustezko mugiezintasun horretatik lan egiten duzu, bidaiarik handiena eraikitzeko".



Desfileko bi irudi, eta, azpian, Pirata Garrapata ikuskizuna. TXINTXARRI

Protesta zena ospakizun bihurtu dute azkenean

Hautsak harrotu ditu Eusko Jaurlaritzak iragarritako dekretu batek: urteko hamabi kontzertutara mugatu nahi du tabernen jarduna. Kultur munduko kideen, ostalarien eta gizartearen protesten aurrean, bertan behera utzi dute lege proiektu hori

Iñigo Gonzalez Sarobe

Protesta-ekintza izan behar zena ospakizun bihurtu dute azkenean. Gizarteko hainbat sektorek "kulturaren aurkako erasotzat" hartu dute Eusko Jaurlaritzak duela gutxi iragarritako dekretua. Tabernek kontzertuak eskaintzeko daukaten ahalmena murriztu gura zuen egitasmo horrek: urtean hamabi kontzertu besterik ez. Hautsak harrotu dituela ikusita, atzera bota behar izan du lege proiektu hori.

Kontzertuak prestatzen jo eta su ibili diren lasarteoriarrek erabaki zuten emanaldiak bertan behera ez uztea, eta kultura kalera ateratzearen garrantzia azpimarratzea, nahiz eta dekretuaren mehatxua joana izan. LOUH, Denbora, China Chain, AC/RC eta The Lobsters taldeek, besteak beste, eskaini zituzten emanaldiak Antonio Mercero guneko arkupe parean. Emanaldi laburrak izan ziren, hamabost-hogei minutukoak, baina energiaz eta elektrizitatez beteak.

Euskal Herri osora zabaldu dira gisa honetako protesta-ospakizun ekitaldiak. Eusko Jaurlaritzak dekretu hori kaleratzeko iragarpena egin zuenean Arteak Ireki izeneko plataforma bat sortu zuten hainbat kultur eragilek.



Musika zale asko hurbildu zen Okendo plazara. TXINTXARRI



Emanaldi laburrak eskaini zituzten taldeek. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Presoen senideen errealitatea

Sare Herritarrak antolatuta, Mercero gunean presoen errealitatea bistartzeko bigarren ekitaldia egin zuten astearte iluntzean. *Azken arnasa arte* dokumentala eman zuten, eta ondoren, Lasarte-Oriako euskal presoen senideek haien egoera kontatu zuten. Ibon Fernandez, Xabi Gallaga eta Aitzol Iriondo dispersatu dituzte urruneko kartzeletan. Gaur, hilabeteko azken ostiralean, manifestaziora deitu dute.



TXINTXARRI

Korrikako edukiak partekatzeko

Korrika Kulturalaren barruan, lizentzia askeko Wikimedia Commons multimedia biltegiari buruzko ikastaroa egin dute Manuel Lekuona kultur etxean. Helburua da Korrikaren eta Lasarte-Oriaren irudia sarean indartzea, euskararen aldeko ekitaldiaren argazkiak partekatzen.

UDAKO TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali edo ekarri zure curriculuma eta eskaera-orria* beteta Ttakunera **maiatzaren 10a** baino lehen.

*bulegoan eskuragarri. www.txintxarri.eus webgunean edo <https://labur.eus/begirale2019>

Betebeharrak:

- Begurale titulua
- EGA edo baliokidea den agiria
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.



@TtakunKE



asia@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48

Turkia

AZKEN GELAK

NOAOA BIDAIAK

IRTEERA 2019ko ekaina
Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Ehun bat lagun bildu ziren Okendo plazan udal ordezkari politikoei pentsioei buruz esateko zutena entzuteko. Batzuek, gainera, galdera egiteko aukera ere izan zuten. TXINTXARRI

Pentsiodunei erantzun diete

Hauteskunde garaia gerturaten ari den honetan, Lasarte-Oriako Pentsiodunen Koordinakundeak hainbat galdera luzatu dizkie udal ordezkariari, erretiro soldatei buruz duten asmoa ezagutzeko. Alderdi guztiak gonbidatu badituzte ere, ez dira guztiak jaitsi

Maitane Aldanondo

Hamalau hilabete daramatzate pentsiodunek astelehenero euren aldarrikapena kalera ateratzen. Okendo plaza protestarako darabiltzaten abestiekin bete ohi dute eta gaiaren asteko errepasoa entzun nahi dutenentzat aulkiak jarri ohi dituzte. Astelehenean, ordea, itxura bestelakoa zen. Sei aulki biribil erdia osatzen, bakoitzak afixa bana zintzilik. Aurrez aurre, dozenaka lagun udaletxeko eraikinaren pasabide azpian eserita edo inguruan zutik. Batzuk pankarta eusten, beste batzuk, kartelak. Denak gonbidatuek esateko zutena entzuteko prest. Tamalez, ez ziren guztiak agertu.

Hauteskundeen gertutasuna aitzakiatzat hartuta, Lasarte-Oriako pentsiodunen plataformak solasaldi batera deitu zituen herriko udal talde guztiak eta Jesus Zaballos alkatea. PPko bozeramaile Alejandro Saenzek lana tarteko ezin izan zuen parte hartu; PSE-EEko ordezkariak, aldiz, uko egin zioten gonbitari pentsioak udal eskuduntza ez direla argudiatuta. Euren tokia hartu eta aurpegia eman zutenak EH Bilduko Pablo Barrio, Ahal Du Lasarte-Oria Pudedeko David Ares eta EAJko Jon Antxordoki izan ziren; falta zirenen hiruak hutsik utzita.

Gaztelera hutsean egin zuten saioa. Gehiegi ez luzatzea

ziurtatzeko, antolatzaileek astebete lehenago bidali zizkieten galderak partaideei. Plataformako kide Andres Vitoresek irakurri zituen, eta Karmele Berazek testuinguruan kokatu, azalpen labur batekin. Bakoitzaren ondoren, politikariek hartu zuten hitza. Minutu bakarra zuten erantzuteko, mitina sailhestu eta funtsezkoa esan zezaten. Batzuei luze egin zitzairen, beste batzuei labur; eta hainbat erantzun moztu behar izan zituen moderatzaile aritu zen plataformako bozeramaile Jesus Ocejak. Prestatutakoak esan ondoren, bertakoen galderei ere erantzun zieten politikariek; amaierako gogoeta egin aurretik.

Pentsiodunen galderak

- 1 Prest al dago zure alderdia pentsio publikoak eta hauen urteroko errealizatzea KPI errearen arabera izatearekin, laneko kuota sozialak ezabatu gabe, eta Estatuko Aurrekontu Orokorrek bermatzearekin, herrialdeko masa produktiboak sortutako aberastasunaren banaketa zuzena eginez, zergen bidez, beharrezkoa balitz Konstituzioko 128. artikulua baliatuta eta legez ziurtatuta?
- 2 Prest al dago zure alderdia Pentsio Sistema Publikoa blindatzeko eta Gizarte Segurantzari beharrezko baliabideak emateko sistema horren etorkizuna ziurtatzeko?
- 3 Prest al dago zure alderdia Jasangarritasun faktorea indargabetzeko, ez dadin 2023 urtean ere indarrean sar?
- 4 Prest al dago zure alderdia gutxieneko pentsio duinak ahalbidetzeko, Europako Gutun Sozialak babesten duen bezala?
- 5 Prest al dago zure alderdia aktiboki jarduteko gizonezkoen eta emakumezkoen arteko soldata arrakalaren presazko desagertzearen alde?



Pablo Barrio
EH Bildu

- 1 Bai. EH Bilduren ardatzetako bat herritar guztientzako bizitza duina lortzea da, beraz, erosteko ahalmena mantentzearen alde gaude. KPlaren igoerarekin arazoizko pentsioa dutenek mantentzen dute, baina ez da nahikoa pentsio baxuentzat, alarguntzat... Irizpideak anbizio handiagoa izan behar du eta zerga bidez finantzatzeko aukera dago.
- 2 Privatizazio joerari lotutako neurriak dira hartutakoak, beraz, haien aurka gaude. Foro guztietan hala adierazi dugu, bai Eusko Jaurilaritzako aurrekontuan negoziatioetan, bai Madrilgo Kongresuan... Gutxieneko maila bat ziurtatu behar da. Kudeaketan aritu garenean ere hala jokatu dugu; Gipuzkoako Foru Aldundian hartutako politika fiskaleko neurriekin zerga progresiboaren alde egin genuen. Gehiago duenak gehiago ordain dezala. Logika hori mantenduko dugu sistema publikoa bermatzeko, eta beharrezko bada, baliabide fiskaletatik finantza dadila.
- 3 Ageriko erantzuna da, bai. Neurri honek pentsioen murriztea ekarriko luke denborarekin, beraz, kontra dago EH Bildu.
- 4 1.080 euroko gutxieneko pentsioena ez da aldarrikapen berria, Okendo plazako lokalean jarrita dugu hori dioen pankarta zaharra. Uste dugu epe laburrera posible dela, bizpahiru urtetan lor daiteke, zergen bidez finantzatuta. EAJrekin egindako aurrekontuen negoziatioetan, erdibideko pauso gisa 858 euroko gutxieneko pentsioak eskatu genituen, baina baztertu egin zuten, 35 milioi euro behar zirelako. EAJk kendutako ondarearen zergaren eraginez, 15 milioi euro diru publiko gutxiago jasotzen dira Gipuzkoan; 38 gipuzkoarrek 400.000 euro gutxiago ordaintzen dute. Posible da; borondatea behar da.
- 5 Arazo zabala eta zaila da, hainbat esku hartze maila ditu. Pare bat bakarrik aipatuko ditut. Administrazioetik esku har daiteke berarekin egindako kontratuetan klausula sozialak jarrita. Alor guztietan erabilgarria den mekanismoa da, baita udaletan ere. Neurri garrantzitsu bat litzateke ere alarguntze pentsio osoa kobratzea. Emakume askok ez dute soldatapeko lanik izan, baina etxean lan egin dute; beraz, senarrak irabazitakoaren %100 dagokie. Ez du arazoa konponduko, baina lagungarria da.

- 1 Baiezko biribila. Errebalorizatzea Podemosek PSOeri jarritako baldintza izan zen Aurrekontu Orokorrak babesteko. Errebalorizazio indizea indargabetzeko prest gaude, %0,25 igo beharrean, KPI errealaaren arabera haz daitezten.
- 2 Bai, prest gaude legez blindatzeko, gainera, agintean dagoena dagoela ziurtatuta egoteko moduan egin nahi dugu. Baita Estatuko Aurrekontu Orokorretara jo ere, diru gehiago bideratu ahal izateko Gizarte Segurantzara eta funts nahikoa egon daitezten. Presio fiskalean aldaketak ere proposatzen ditugu; gehiago duenak gehiago eman behar du. Azterketa guztien argitan, Podemosek uste du ez dela baliabide kontua, borondate eta lehentasun politikoena baizik.
- 3 Indargabetzearen alde gaude, baina halaber, jubilazio adina 65 urtean uztearen alde ere, 67 urtera igo beharrean. Horrek, gainera, % 30eko galera ekarriko lieke etorkizuneko pentsioei. Podemosek uste du 65 urterekin nahikoa lan egin dutela. Atzeratzea lortu bada ere, indargabetzea eskatzen dugu, ondorio tamalgarriak eta murrizketa izugarriak ekarriko dizkielako etorkizuneko pentsiodunei.
- 4 Podemosek bat egiten du Europako Gutun Sozialarekin, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzearekin. Justizia sozial kontua da. 400-600 euroko pentsio batekin ezin da bizitza duina izan. Bat gatzoz zuen proposamenarekin.
- 5 Soldata arrakala desagerraraztearen alde lan egiteko prest gaude. 1.080 euroko gutxieneko pentsio horrek ziurtatuko luke soldata arrakalaren tarte bat murriztea. Hori litzateke neurri nagusia. Emakume pentsiodunak dira kaltetuena. Euskadin 190.000 pentsiodun daude gutxieneko soldatetik beherakoak jasotzen dituztenak, gehienak emakumezkoak. Argi dago baldintza okerragoak dituzten lanak egiten dituztela: garbiketara, ostalaritza... eta horrek pentsio murrizta uzten du. Erreforma garrantzitsua egin behar da. Pentsio plan pribatuen kontra gaude ere, iruzurra dira eta pentsioen arrakala areagotu besterik ez dute egiten; Pentsio Sistema Publikoaren kontra doaz.



David Ares
ADLOP

- 1 Bai. Orain urte eta erdi EAJk aurrekontuak negoziatu zituen KPlaren igoera lortzeko. EAJ alde dago, baina eskatzen du Estatutua betetzea, Gizarte Segurantzaren eskuduntza ematea, etxetik gobernatuta hobe kudeatuko dugulako.
- 2 Ados gaude. Kongresuan erakutsi dugu ez dugula horrela pentsatzen bakarrik, ditugun bost ordezkarietara aurrera eramaten ahalegintzen gara ere. Behar duguna da Espainiak Gernikako Estatutuarekin betetzea, eta etxean dugunean, uste dut hobe kudeatuko dugula, hezkuntzan edo alor askotan bezala.
- 3 2011n kontra egon ginen jubilazio adina 65 urtetik 67 urtera aldatzearekin, eta argi dago, Jasangarritasun faktorearen kontra ere bagaudela. Ez ginen plazara irten kontra gaudela esatera, baizik 2023ra atzeratzeko negoziatu. Ekintzek hitzek baino gehiago balio dute.
- 4 Eusko Jaurilaritzak gutxi du egiteko horretan, Gizarte Segurantzaren gaineko eskumenak transferitu ezean. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentarekin saiatu gara pentsioak osatzen, baina behiak ez du denentzako esnea ematen eta ezin da 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezarri.
- 5 PPrekin aurrekontu orokorrak negoziatu genituenean pentsioen igoera txiki bat ere negoziatu genuen. Argi dago ez dela nahikoa. Alderdi guztiak Toledoko Mahaian eseri ginen eta akordioa lortzar ginenean, Podemosek atzera bota zituen adostuta genituen 21 neurriak, eta mahaia hautsi zen. Eskuduntza hemen dugunean saiaturako gara soldata arrakala desagerrarazten, logikarik ez baitu.



Jon Antxordoki
EAJ

Azken hitz hartzea

PABLO BARRIO:

Neurriak ezarri eta politikak aplikatzeko beharrezkoa da tresnak eskura edukitzea. Horregatik, garrantzitsua da gizarte segurantzaren eskumenak jasotzea. Hauteskunde kanpainaren aurrean gaude, ez zaitez fida politikariek esaten dugunaz. Lucio Urtubiak zioen moduan: "Ez gara esaten duguna, egiten duguna baizik". Alde horretatik, begira zer egin duen EH Bilduk aurrekontuak negoziatzerakoan edo Gipuzkoan kudeatzerako orduan.

DAVID ARES:

Pentsiodunei dei egiten diegu borrokan jarrai dezaten, etorkizun duin batengatik. Podemosek pentsiodunen mugimendua babestuko du, horren borrokalari eta horrenbeste energiarekin jarrai dezazuen.

JON ANT XOR DOKI:

Estatutua bete behar dute. Gure eskumenak direnean, hobeto kudeatzen ditugu gauzak. Euskaldunena dena hobeto gobermatzen dugu geuk, kanpotik inork nola egin behar dugun esan beharrean.





Jon Antxordoki, Euskara Batzordeko burua, Imanol Goikoetxea, Ikermapekoa, eta Juanito Bereziartua euskara teknikaria. TXINTXARRI

"Historia, kultura eta bizimoduaren lekukoa da toponimoa"

IMANOL GOIKOETXEA IKERMAPEKO ZUZENDARIA

Lasarte-Oriako toponimia azterketaz arduratu da Goikoetxea, agiritegietan arakatzeko eta herritarrei galdetzen. Hirigintzako hazkunde handiak galarazi ditu leku izen asko

Adrian Garcia

Toponimiak inguru bati buruzko informazio osoa du; historia, kultura, ondarea... Lekuaren gaineko informazio asko jasotzen dute toki izenek, antzinako bizimoduko aztarna biziak baitira. Ondare hori kontserbatzeko, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko toponimia biltzen duen ikerketa argitaratu du, eta mapa batean dago ikusgai, sarean: <http://toponimia.lasarte-oria.eus/>. Ikermapa enpresa arduratu da horretaz. Imanol Goikoetxea (Donostia, 1960) da etxe horretako

zuzendaria; beste hainbat herritan ere aritu da leku izenak aztertzen.

Zer informazio ematen digu toponimiak?

Ondare kulturala, historia eta bizimoduaren lekukoa da toponimia. Gainera, euskalkiaren funtzionamenduaren gakoa ere ematen digu.

Nola bilatzen dira antzinako toki izenak?

Hiru atal ditu azterketa moderno batek. Batetik, ahozko jasotzea. Bestetik, ikerketa dokumentala agiritegietan. Gero, bi atal horiek kontutan hartuta, toponimia formak arautzen dira. Laugarren

atal bat ere badago, normalizazioarena, baina hori gizartearen esku dago.

Aurretik ere egin dira Lasarte-Oriako toponimia azterketak. Zer berezitasun du honek?

Aldez aurretik ahozko jasotzeak egin dituzte, eta orain, guk horiek dokumentatu egin ditugu.

Ahozko jasotzea eta agirietako ikerketak lotuta egongo dira, ezta?

Dokumentuak aztertzen dituzunean, aldez aurretik ahozko toponimo bezala agertzen ez den leku izen bat agertu daiteke. Gutxi gorabehera non dagoen asma dezakezu; baserri bati lotuta dagoen, kaleko etxe bat den...

Bertako lekukoei galdetu diezaiokezu berrirori, eta agian ahozko forma ere jaso dezakezu. **Nora jo duzue ahozko bilaketa egiteko? Pertsona zaharrenek al dute informazio gehiago?**

Informatzaile onen bila jotzen dugu. Adina garrantzitsua izan daiteke, baina zahar guztiek ez dute toponimia menderatzen. Badira ondare hori buruan duten adin ertaineko pertsonak.

Zein da informatzaile onaren profila?

Normalean bertan jaiotako jendea da; lanarengatik edo bizi jarduerarengatik leku izenen ezagutza hori dute, erabili egiten dituztelako. Bi informatzaile mota daude: landa lurrekoa, eta kalekoa.

Arazorik izan al duzue Lasarte-Oriako toponimoak aurkitzerako garaian?

Hirigintza hazkundera oso handia izan da azken hamarkadetan, desitxuratu egin da alde aurretik zegoen egitura espaziala, eta horrek baserri pila bat suntsitu ditu; horietako bakoitzak sortzen zituen bere toponimoak. Bestalde, desagertu diren etxe zaharren izenak berreskuratzea oso zaila da, erreferentzia argirik ez dagoelako.

Lasarte-Oriako Udala 1986. urtean eratu zen. Beste udal arxibategietan ikertu behar izan duzue, ezta?

Aberatsena Hernanikoa izan da, zalantzarik gabe. Urrietakoa ere egin zen Karlistadetan; arxibategi hori nahiko zoritxarrekoa izan da. Donostiakoan ere ibili gara.

Beste herri batzuen azterketa toponimikoa ere egin duzu, kasurako, Azpeitiarena eta Errenteriarena. Lasarte-Oriako nabarmenduko al zenuke zerbait?

Agian ez da politikoki zuzena esatea, baina egia da: urria da toponimia. Oso aberatsa da kalean; aldiz, landa aldean ez horrenbeste. Nire ustez, oso lotuta dago izan den jabego motarekin. Baserritar guztiak maizterrak ziren, eta, ziurrenik, familia bakarra zen lurren jabe. Hortaz, toponimoak ez ziren horrenbeste behar, ez zeudelako lur amankomunak... Sortu dira toponimo asko, *kalitate ez onekoak* deitzen diegunak: *etxeazpia*, *etxegaina*, *etxaburua*, *etxeondoa*... oso orokorrak dira. **Aurkitutako bitxikeriren bat azal dezakezu?**

Badira batzuk. Sarobe edo Korta topatu dugu. Sarobe da jabego mota bat. Ustiapen pribatu bat da, jabegorik gabe, lursail

Izen ofizialak, toponimiak

Ondarea zaintzeko baliagarria da toponimia, baina beste erabilpen praktikoak ere baditu. Ikermapen azterketa baliatu du udalak 289 leku izen eta 109 kale izen ofizial egiteko. Udabatzarraren Osoko Bilkurak 2018ko uztailaren 24an egindako bileran onetsi zituen horiek guztiak, eta 2018ko abuztuaren 8ko GAO-n argitaratu ziren.

amankomunetan. Hori Lasarten egotea oso gauza arraroa da; ziurrenik, okendotarren boterea sortu aurretikoa da. Alegia, oso atzera jo behar dugu. Sarobe baten erreferentzia dokumental bat agertzen da, XV. mendekoa, Elkezabal baserriaren inguruan. Oso bitxia da hori.

Baserrien izena hartzen dute auzoek, Sasoeta, Basaundi... Ohikoa al da hori beste tokietan ere?

Auzoen izendapena erabaki politikoa da; udalak hartzen du. Ohorezko izenekin izendatu dezakezu, bertako seme-alaben omenez, izen erlijiosoekin edo bestelakoekin. Edo jatorrizko toponimiarekin. Azken hori askoz ere kulturalagoa da.

Askori bitxia egiten zaie Atsobakar auzoaren izena, batez ere, kontuan hartzen bada zaharren egoitza hortxe dagoela. Izen horrek ere zerikusia du baserri batekin, ezta?

Bi baserriekin, hain justu. Izen baten aldaketa proposatzeko oso arrazoi indartsuak behar dituzte, eta ez ginen hori egitera ausartu. Baina dokumentazioan ez dator beti *atsobakar*. Egia da izena bitxia dela: *Atsobakar* zaharren egoitza. *Atsodacar*, *asodacar*... Forma asko agertzen dira. *Auzobakarretik* etor daiteke, edo *dakar* aditzetik.

Hirigunean erreka asko dokumentatu dituzue. Hain zuzen, hortik dator Lasarte hitza.

Bai, hirigune guztietan hori gertatzen da. Inguru naturalean egin dira hiriak, eta ohikoa da erreka egotea, batez ere ipar isurialdeko Euskal Herrian. *Latsa* da erreka izen zaharra euskaraz, eta *lats artean* esan nahi du Lasartek.

Toponimiaren webgune berria zure eskura:

toponimia.lasarte-oria.eus

LASARTE-ORIAren ondarea

- 700 toponimoren zerrenda alfabetikoki ordenatuta eta geolokalizatuta.
- 500 argazkitik gora.
- Sailkapenaren arabera eta testuaren arabera bilatzeko aukera.
- Azalpen dibulгатiboa.
- Toponimoen forma dokumentalak eta ahozkoak.

 Sakelako telefonoarekin erabilgarri

Herri bateko leku-izenek edo toponimoek informazio ugari ematen digute bertako hizkuntzari, bizimoduari, ohiturei, gertaera historikoei edo sinesmenei buruz. Horregatik da garrantzitsua horiek ezagutzea, zaintzea eta belaunaldiz belaunaldi transmititzea.

Parte hartu:


Webgune honi argazkiak edo beste ekarpenak gehitzeko zure parte hartzea behar du. Jar zaitetz gurekin harremanetan.

Tel: 943 37 61 84

E-maila: euskara@lasarte-oria.eus



Lasarte-Oriako Udaleko Euskara-zerbitzuak herri-ondare hori jaso eta guztion eskumenean jarri du.



Telleria (Lantegia) Teila fabrika

Brigitarren komentuaren eta Goienkaleko lehen etxeen artean zegoen teila-fabrika edo teileria



Zubiaurre (etxea)

Plazaolako trenbidea Kale Nagusia gurutzatzen zuen lekuan, gaurko Tajamar eskultura dagoen biribilgunean.



Etxegorri (etxea) Sinonimoak: Baratzalde

Baratzalde etxearen izen herrikoa, fatxadaren margoa gorria zelako.



Lizarriturrienea (etxea) edo Alpargategiberri

Etxea, Alpargategiberriaren izen zaharra.



Lasartegaraikoa (etxea)

Isastik aipatzen du XVII mendean. Lasartegaraikoa izeneko baratza lokalizatu da, Urrietako errepidea autobidea gurutzatu baino lehen. Lasartegaraikoa etxea orain gutxi arte zutik iraun duen Aizpurua etxearen orubean kokatu zen.

Sailkapena eskuetan dute LOKEko gimnastek

Eskolarteko A mailako eta amateur mailako gimnastek Gipuzkoako txapelketarako sailkapen fasea amaitu dute. LOKEko kirolari gazteek txapelketa nagusirako txartela eskuratu dute. Maiatzean hainbat hitzordu garrantzitsu izango dituzte

Txintxarri

LOKEko gimnastek Eskolarteko A eta amateur mailako txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten igandean, Ibarren. Gipuzkoako txapelketarako sailkapena jokoan zuten, eta ederki erantzun zuten bakarka, zein taldeka. Sailkapen orokorreko lehen postuetan daude, eta guztiak izango dira maiatzean jokatuko diren Gipuzkoako txapelketetan.

Aizpea Arroyo eta Garazi Gomez amateur mailako Senior A mailako gimnastek borrekin egin behar izan zuten lan. Arroyok hirugarren postua eskuratu zuen, eta, Gomezek, berriz, bederatzigarrena.

Sailkapen faseko lehen saioko postuei esker, biak izango dira Gipuzkoako txapelketan. Arroyo lehenengo saioan uztail lanean garaile izan zen, eta sailkapen orokorreko lehen postuan geratu da. Gomez, berriz, lehen saioan hirugarren izan zen, eta sailkapen



LOKEko gimnastak txapelketa hasi baino lehen. LOKE GIMNASTIKA

orokorrean seigarren postuan amaitu du txapelketa.

Jubenil B mailan, Paula Martinezek zinta lana eginda seigarren postua eskuratu zuen.

Martinezek eta Jaione Martosek osatu dute Ibarren lehiaketa. Aurreko saioan, Martosek pilotarekin laugarren postua egin zuen. Bien emaitzak batuta,

sailkapen orokorreko laugarren postua eskuratu dute.

Miriam Prieto eta Maitane Arroyok ere kadete B mailako Gipuzkoako txapelketarako sailkatzea lortu dute, zortzigarren postua eskuratuta. Amateur txapelketako lehen saioan Arroyo uztai lanean bigarren izan zen; oraingoan, Prietok zortzigarren postua lortu du borrekin lan egiten.

Eskolarteko alebin A mailan, Eneritz Diaz de Gereñu izan zen lehian. Sokarekin egin zuen lanak seigarren postua eman zion. Kategorian estreinakoz aritu zen. Eskolarteko txapelketako lehen saioan B mailan parte hartu zuen LOKEko gimnastak. Hartan erakutsitako trebetasunak A mailan lehiatzeko aukera eman zion eta igandean lortutako emaitzak Gipuzkoako txapelketan parte hartzeko txartela eman dio.

Bikote edo taldeei dagokionean, amateur mailako senior A taldeak borra eta pilotekin egin zuen lana, eta bigarren postua eskuratu zuen. Txapelketako sailkapen orokorrean ere bigarren izan da.

Eskolarteko kadete B mailan, berriz, LOKE-Santa Teresa eta LOKE-Oriarte taldeek parte hartu zuten. Biek uztai eta pilotekin lan egin zuten. Donostiako ikastetxeko taldeak laugarren postua eskuratu zuen, eta Lasarte-Oriakoak, berriz, zortzigarrena. Sailkapen orokorrari begira, Oriarte bosgarren izan da, lehen

saioan laugarren izan zen. Santa Teresa, ordea, seigarren izan da. Postu hori da, hain zuzen, aurreko saioan lortu zuena.

LOKEko arduradunak oso pozik daude gazteek egindako lanarekin, eta gimnasta guztiak zoriondu dituzte Gipuzkoako txapelketarako sailkatzea lortu izanagatik.

Maiatza, txapelketaz beteta

LOKEko gimnastek Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak dituzte buruan. Maiatzean izango dira guztiak, baina badago beste txapelketarik.

Amateur mailako Gipuzkoako txapelketa maiatzaren 19an jokatu dute Eibarren; Euskadikoa berriz, maiatzaren 5ean. Garazi Gomezek, Aizpea Arroyok eta Senior taldeak bietan egoteko aukerak dituzte.

Eskolarteko Gipuzkoako txapelketa maiatzaren 11n izango da, Tolosan. Ekainaren 1ean, aldiz, Euskadiko XXXVIII. Eskolarteko Kirol Jokoak aurrera eramango dituzte Santurtzin.

Data horien tartean, Udaberri txapelketako finala dago. LOKEko txikien taldeak maiatzaren 5ean, Donostian izango du hitzordua.

MAIATZEAN GIPIZKOAKO TXAPELKETETAN LEHIATUKO DUTE LOKEKO GIMNASTEK

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Zumaiaiko FT - Ostadar SKT Igandea. 18:00. Aita Mari, Zumaian.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Orioko FT Larunbata. 17:30. Michelin Kirol gunean.
ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA
Intxurre KKE - Ostadar SKT Igandea. 18:00. Elorri, Alegian.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Billabona KE Larunbata. 15:45. Michelin Kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
Ostadar SKT - Sanpedrotarra FE Igandea. 10:30. Michelin Kirol gunean.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Real Union Club SAD - Ostadar SKT Larunbata. 11:30. Gal, Irunen.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
Ostadar SKT B - Idiazabal KE A Larunbata. 12:45. Michelin Kirol gunean.
Lazkao KE - Ostadar SKT A Igandea. 12:00. Arizti Handi, Lazkaon.

INFANTIL OHOREZKO, TXAPELDUNEN FASEA
Arrasate CD - Ostadar SKT Igandea. 11:45. Mojate, Arrasaten.
INFANTILEN 1. MAILA, KOPA
Danena KE - Ostadar SKT A Larunbata. 09:30. Elbarrena, Zizurkilen.
Ostadar SKT B - Udarregi Usurbil B Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Texas Lasartearra - SANSE A Larunbata. 14:15. Michelin Kirol gunean.
INFANTILEN F-8, KOPA
Ostadar SKT - Udarregi Usurbil Larunbata. 09:45. Michelin Kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Asador Irigoien - Academia London Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.
Avenida taberna - Trumoi taberna Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.
Bar Buenetxea - Patricio Cocktail Bar Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.
Izen gabe - Viña del Mar Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.

GIPIZKOAKO SENIORRA
TEEP Samaniego - Garoa taberna Ostirala. 20:30. Uzturpe frontoia, Tolosan.
GIPIZKOAKO I. MAILA
Aldaz Klinika - Idiazabal Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
GIPIZKOAKO II. MAILA
Pizzeria B17 - ISU Leihoak Larunbata. 18:00. Gaska kir., Donostian.
GIPIZKOAKO JUBENILAK
Zarautz KE - Bar Lasarte Larunbata. 09:00. Antoniano kir., Zarautzen.
GIPIZKOAKO KADETEAK
Mondrate CD - Balerdi Harategiak Larunbata. 10:00. Musakola kir., Arrasaten.
SASKIBALOA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Grupo EME Oiarso SKT - Ostadar SKT Larunbata. 20:00. Don Bosco, Errenterian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Take Coach Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.

JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT A - Easo Bankoa Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR PARTE HARTZEA
Ostadar SKT B - Goierri Goierribus Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
KADETE PARTE HARTZEA
Ostadar SKT B - Ibaeta Bera Bera Igandea. 11:10. Maialen Chourraut kir.
LASTERKETA
XXVI. AZKOITIA-AZPEITIA MARATOIA
Azkoitia-Azpeitia artean egiten den lasterketan hainbat herritarrek parte hartuko dute. Horrekin batera, 8,1 km-tako proban ere herritarrek izango dira. Larunbata. 6:15. Azkoitian.
III. ARANTZAKO MENDI LASTERKETA
Herriko hainbat korrikalarik parte hartuko dute Ekaitza Elkarteak antolatutako 20 kilometroko proban. Igandea. 09:30. Arantzan.

OSASUNAREN ALDEKO MILIAK
Bidasoa Atletiko taldeak antolatutako Bidasoako Minbiziaren Aurkako Elkartearen aldeko kirol proben artean, bikotekako lasterketan parte hartuko dute zenbait herritarrek. Igandea. 12:00. Irunen.
ERRUGBIA
SENIORRA EUSKAL LIGA
La Unica RT - Zarautz Beltzak RT Larunbata. 15:00. UPNA, Iruñean.
18 URTEZ BEHERAKOAK
Zarautz Beltzak RT - AVK Bera Bera Larunbata. 10:00. Asti, Zarautzen.
16 URTEZ BEHERAKOAK
Zarautz Beltzak RT - AVK Bera Bera Larunbata. 11:30. Asti, Zarautzen.
IGERIKETA
ESPAINIAKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudaire Erkidego arteko Espainiako Txapelketan lehiatuko da Euskadiko selekzioarekin. Larunbata eta igandea. Madrilen.

Trinkoko triatloilariek denboraldiari ekin diote

Andoni Illarramendi herritarrak beteranoetako bosgarren postua lortu du Oñatiko Duatloian. Trinko Lasarte-Oria triatloi taldeko Imanol Arteaga eta Asier Gorostegi ere lehian izan dira. Apirilaren 27an Getariako Triatloian arituko dira triatloilariak

Txintxarri

Trinko Lasarte-Oria triatloi taldeko Imanol Arteaga eta Asier Gorostegi kideek lasterketa denboraldiari hasiera eman zioten larunbat arratsaldean. Oñatiko Duatloian XXVII. edizioan lehiatu ziren. Ez ziren irteera puntuan herritar bakarrak izan, Zumeatarra triatloi taldean dabilen Andoni Illarramendi ere bertan izan zen.

Aloña Mendi K.E. Triatloi Taldeak eta Gipuzkoa eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatutako Oñatiko Duatloia distantzia motzeko proba da. Hori dela eta, ibilbidea hiru zatitan banatzen da: 10km. korrika, 37 km. bizikletan eta azkenik, beste 5 km lasterka. Edizio horretan, gainera, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak zeuden jokoan.

Herritarren artean azkarrena Andoni Illarramendi izan zen. 23. postuan helmugaratu eta beterano 1. mailako bosgarrena izan zen. Ibilbidea egiteko 1:57:39 behar izan zituen.

Illarramendi 36. postuan iritsi zen lehen trantsiziora, eta bizikleta gainean ederki moldatzen dela erakutsi zuen gero. Zati horretako 9. denbora onena egin eta hainbat postu aurreratu zituen azkeneko zatian



Andoni Illarramendi Oñatiko probako helmugara iristen. FELIX SANCHEZ ARRAZOLA

begira. Imanol Arteagak hamar minutu gehiago behar izan zituen helmugara iristeko: 2:08:35. Illarramendiren antzera, bizikletako tartean egin zuen bere denborarik onena.

Azkenik, Asier Gorostegik, 2:19:23-ko denbora behar izan zuen proba amaitzeko. Indarrak ongi neurtuta, lasterketa erregularra egin zuen.

Triatloilarien hurrengo hitzordu garrantzitsua apirilaren 27an izango da, V. Getariako Triatloian. 750m. igerian, 20 km. bizikletan, eta 5 km. korrika egin beharko dituzte dortsala lortu duten herritarrek; 24 ordu baino gutxiagoan dortsalak agortu ziren. Illarramendi, Gonzalo eta Aimar Sukunza eta Ramon Altuna dira horietako batzuk.



LASARTE-ORIA TRAIL

Talaia Bidean, mendian gozaten

Talaia Bidean lasterketa arrakastatsua da, eta zozketa bidez egokitzen dira dortsalak. Halere, Lasarte-Oriako hainbat mendi korrikalarik parte hartu dute Donostia eta Hondarribia menditik lotzen dituen lasterketan. Ibon Agirre izan da horietan lehena iristen, 2 ordu eta 38 minututan. Marka ona egin du herritarrak, sailkapen orokorrean 17. a sartu baita helmugara. Hauxek izan dira herriko beste parte hartzaileak: Richar Marcos (2:50), Luis Maza (3:00 ordu), Marco Salazar (3:01), Jesus Osua (3:02), Xabi Carcedo (3:06), Igor Sevillano (3:27), Koldo Lucero (3:42). Bestalde, Marc Bagues Kolazinoko Mendi Egunean lehiatu da.



ZARAUTZ BELTZAK RT

Porrota, denboraldia amaitzeko

Ohorezko B mailako denboraldia amaitu da. Babyauto Zarautz Beltzak RTko kideek Santanderren jokatu zuten azken partida larunbatean. Zarautzeko taldeak ez zuen ezer jokoan, sailkapen taulako erdialdean baitzegoen eta lasai atera zen liderraren aurka jokatzera; Bathcok, ordea, lehen postua. Bathco RC taldea hasieratik aurreratu zen markagailuan. Nahiz eta entseguak lortu, Babyautok ezin izan zion aurre hartu. Bigarren zatian, kantabriarrak izan ziren nagusi eta azken emaitza 68-24 izan zen. Horrenbestez, seigarren postuan amaitu du liga Babyauto Zarautzek.



ASTE... GAZTEA!!!!

Orion 3 egun!!!!

Apirilaren 15etik 17ra

Noiz: Apirilaren 15etik 17ra **Norentzat:** 9-12 urteko haurrak

Prezioa: Ttakuneko bazkideak 48€ | Bazkide ez direnak: 51€

Izen-ematea: Apirilaren 5a arte (hau barne)

Informazio gehiago: Ttakuneko bulegoan | 943 37 14 48 | aisia@ttakun.eus

Bilera gurasoekin: Apirilaren 10ean, 17:30ean Anbulategiko 2. solairuan


**PLAZA MUGATUAK!
ANIMA ZAITEZ!**

EZ GALDU AUKERA!

**MUGI PLAZAK BUKATU
BAINO LEHEN!**



Primeran pasako dugu, TXURRUKAN



Iñigo Benedicto eta Diana Benedicto 400 metro lasterketan. OSTADAR INKLUSIOA



Atleta gazteak Jokin Garcia entrenatzailearekin. OSTADAR INKLUSIOA

Atletismoan ere garaipenak metatzen

Ostadar Inklusio taldeko atleta gazteak Espainiako txapelketako lehen postuetan izan dira. Gazte eta familientzat esperientzia ederra izan da. Orain absoluto mailako Euskadi eta Espainiako txapelketetako prestaketak hasi dituzte atletak

Txintxarri

Ostadar SKTko Inklusio taldeko kideak bikain lehiatu dira Atletismoko adin tarteetako Liberty Seguros Espainiako Txapelketan, Collado Villalba, Madrilan. Lehen postuetan izan dira eta 100 m. proban hiru kirolarik garaipena eskuratu dute. Taldeko arduradunak oso pozik daude atletak egindako

lanarekin. "Oso ondo lehiatu dira. Uste genuena baino hobeto ibili dira," jakitera eman du Jurgi Olasagasti saileko arduradunak.

Taldeko lau gaztek, Ezequiel Hernandezek, Ane Asensiok, Diana Benedictok eta bere gida den Iñigo Benedictok eta Xuban Santinek parte hartu zuten txapelketan, adin eta maila ezberdinetako probak egin

zituzten. Guztiek batera 4x100 m. lasterketan ere aritu ziren.

Ezusteko handiena Ezequiel Hernandezek eman zuela azpimarratu du Olasagastik. 16 urte azpiko gazteen T20 mailan, 100 m. eta 300 m. lasterketan parte hartu eta bietan garaile izan zen.

Ane Asensiok 18 urtez azpiko gazteen T34 mailako 100 m. eta

400 m. lasterketak egin zituen. Lehenengoan garaile izan zen. "400 m. proba ere ederki egin zuen. Luzea egin zitzaion, Anek duen arazoarengatik ezin duelako aulkian denbora asko egon".

Diana Benedictok ere lasterketa beretan parte hartu zuen aita gida lanetan zuela. 100 m. lasterketan bosgarren izan ziren eta 400. metroetan, beraien marka hobetu zuten. "Bigarrentatik lau segundora geratu ziren".

Xuban Santinek 16 urtez azpiko T33 mailako 100 m. lasterketa egin eta garaipena erdietsi zuen. "Lasterketa nahiko luze egin zitzaion, baina denboraldi hasieratik hona aulkian egindako entrenamenduari esker, aurrera egin zuen".

Entrenatzaileek txapelketaren irakurketa ona egin dute. "Txapelketa bikaina izan da.

Batzuentzat lehen aldian maila horretako txapelketa batean lehiatzen. Eraitza onak izateaz gain, giro ederra eta lagunartekotasun handia izan da gazte eta familien artean".

Absoluto mailako txapelketa

Hurrengo txapelketak prestatzen hasi dira gazteak. Apirilean Euskadiko absoluto mailako txapelketa izango dute eta ekaina aldera Espainiako.

Horretarako atletismo saileko kideak astelehenetan eta asteazkenetan biltzen dira haien entrenatzaileekin Lasarte-Oriako eta Donostiako egoitzetan. Ane Asensio eta Xuban Santinek Xabi Sagarna eta Etxahun Urkizu dituzte entrenatzaile. Diana Benedictok Jurgi Olasagastirekin egiten du lan eta Jokin Garcia da Ezequiel Hernandezen entrenatzailea.

Gozatu ederra hartu zuten haur eta gazteek Euskal Krosean

LH6 mailakoak izan ziren korrika egiten lehenak. Promozio gazteagoetako neska-mutilak aritu ziren gero

Iñigo Gonzalez Sarobe

Eneko Castoren omenezko Euskal Krosaren 22. edizioan lehiatu ziren igandean Landaberri ikastolan ikasten duten dozenaka gaztetxo. Eguraldi ezin hobea lagun, atletismoaz disfrutatu zuten, eta gozatu ederra hartu. Guraso eta lagunaren animoek indarrak eman zizkieten helmugara iritsi aurreko esprintean estutzeko. Atsotak

parkeko lanak direla eta, aurten Garaikoetxea eraikinean egin dute jaialdia.

LH6 mailan dauden korrikalari gazteak izan ziren lasterka egiten aurrenak. Patioko estalkian kokatutako irteera lerrotik abiatu ziren; aldapatxoa igo zuten gero; ikastetxetik atera, Somoto parkea zeharkatu, eta beste aldeko sarreratik sartu dira berriro

patiora, zitzu bizian. Orduan erretiratu dira lasterketa kontrolatzen ari ziren gazteak. Helmuga lerroa akituta zeharkatu zuten batzuek, eta irribarretsu beste batzuek.


Goizeko une hunkigarrietako bat lehenengo lasterketan gertatu zen: lagun kuadrilla bat, lau mutil, elkar besarkatuta iritsi zen. Helburu nagusia kirolaz gozatea da. Promozio gazteagoetako lasterkarien txanda iritsi zen gero.

Korrikaldia amaitu ostean, dominak eta freskagarriak hartu zituzten neska-mutiek, indarrak berritzeko. Bukaeran sari-banaketa ekitaldia egin zuten antolatzaileek.



Landaberri ikastolako haur eta gaztetxoek ederki egin zuten lasterka. TXINTXARRI

ZORION AGURRAK




Unai
Zorionak txapeldun!! Ondo pasa eguna, 12 txokolatzeko muxu handi familiaren partetik.



Artai
Zorionak zure 11. urtebetetzean, atte eta amaren partetik. Milioi bat muxu zuretako!!




Julen
Zorionak txapelduna!!!! 7 urte bete dituzu. Asko maite zaitugu. Muxu erraldoi bat familiaren partetik.




Izaro
Zorionak Izaro, zure 5. urtebetetzean. Muxu haundi bat aita, ama eta Garaziren partez.



Jon
Zorionak tximeletatxo! Ondo pasa zure laugarren urtebetetzean. Muxu denon partetik.



Ander
Zorionak Ander! Beti bezain gazte jarrai dezazula. Lanera ez etortzeak ez zaitu libratuko hamaiketarik. Ttakuneko lagunaren partetik.



Malen
Zorionak Malen zure bederatzigarren urtebetetzean!!! Familiaren partetik.

HILDAKOAK

Felipe Luna Bernardez. Martxoaren 27an.
Iñaki Chourraut Echavarri. Martxoaren 24an.
Ricardo Quintela Abascal. Martxoaren 21ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 29 URBISTONDO
Larunbata, 30 URBISTONDO
Igandea, 31 URBISTONDO
Astelehena, 1 GANDARIAS-URIBE
Asteartea, 2 ORUE
Asteazkena, 3 DE MIGUEL
Osteguna, 4 LASA

EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUTUNAK

Lasarte-Oriako Udala eta hondakinen gaikako bilketa

AIRE GARBIA

Lasarte-Oria hondakinen gaikako bilketa %47,5era iritsi delako "berria" irakurri ahal izan dugu udal webgunean. Datua, 2020an lortu beharreko %50eko helburura iristeko bidean, aurrerapen esanguratsutzat saldu nahi digute. Eta, gainera, iaiztik hona izandako %3ko hazkundeak "hobekuntza handia"-tasaren hobaria ezarri izana ekarri omen du. Hortaz, udal gobernuari aitortu behar omen diogun beste meritu handia, alegia.

Berriro ere gogoratu behar dugu hasiera-hasieratik, aukera eman zitzaien unetik beretik materia organikoa bereizita biltzeko sisteman alta eman zuten eta ordutik zintzo-zintzo ari diren familia lasarteoriatarak (hartu duten

konpromisoagatik orain zoriontzen dituzten horietatik), hondakinak sailkatzen ez dituztenen jokaera tamalgarriagatik, eta udalaren beraren axolagabekeria eta utzikieragatik, zigortuak izan direla.

Edonola ere, oraindik ere, eta erraustegia gure muturraren aurrean dugun herri santu honetan, udala 2020rako %50era iristeko helburuaz hitz egiten ibiltzeak auzolotsa eragiten digu. 2018ko datuak hartuta, gure inguruko herriei erreparatuta, honela daude gauzak gaikako bilketako ehunekoari dagokionez: Usurbil %85; Hernani %77; Astigarraga %77; Urnieta %70; Andoain %45 (baina, aurretik, errefuserako giltzapeko edukiontzi sistema berriarekin, %63)... eta, azkena, Lasarte-Oria %46

Gipuzkoa osoa hartuta, datua %53koa da. Eta, esan beharra dago, Lasarte-Oria baino okerrago

bakarririk lau udalerririk ari direla (Donostia, Irun, Hondarribia eta Mendara). Datu objektiboa da: birziklapenaren trenaren azken bagoian goaz.

Gauzak ondo baino hobeto egiten ari den eskualdea Debagoiena dugu; aurtengo urtarrilean %79ko tasa batez besteko. Leintz-Gatzaga %85, Antzuola %82, Bergara %82, Oñati %79, Aretxabaleta %78, Elgeta %78, Eskoriatza %78, eta Arrasate %76.

Hauxe dugu jarraritu-beharreko eredua. Honek frogatzen digu benetako borondatea izanez gero, Gipuzkoa osoan %80a bereiztu ahalgo litzakela. Eta horrela erraustegia ezereztuko genukeela.

Lasarte-Oriako datu lotsagarriak salatzen eta erraustegia ezerezte aldera, sistema aldatzeko beharra erreibindikatu duen mobilizazio berri bat deituko du Aire Garbia ekimenak laster. Adi egon, beraz.

OHARRAK

Ostadar SKT

Futboleko 19/20 denboraldia prestatzen hasi gara, eta nesken taldeak osatzeko jokalaria behar ditugu: infantilak (06/07an jaiotakoak) eta kadeteak (04/05ean jaiotakoak). Beraz, hurrengo denboraldian gurekin jokatu nahi baduzu, astelehenetan 18:00etan Mitxelingo futbol-zelaian agertu eta probatu. Abixatu alde aurretik mesedez.

Posta bidezko botoa


Apirilaren 28ko Hauteskunde Orokorretan boza postaz emateko asmoa duten herritarrek, apirilaren 18ra arte dute eskaera egiteko. Alderdi politikoek haien laguntza eskaintzen diete herritarrei tramiteak egiteko. PSE-EEko egoitzara (Ganbo, 1) astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrek edo 943-372 869 zenbakira deitu dezakete.

Bidaia Britainia eta Normandiara


Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatuta du Britainia eta Normandiara, uztailek 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 29




Larunbata, 30




Igandea, 31



Astelehena, 01



Asteartea, 02



Asteazkena, 03



ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Pisua alokatzen da Usurbil erdigunean. Igogailua du. Bikote batentzat aproposa. Kanpoaldera, handia, altzairuekin. 650 636 588.

Garajeko marra bat alokatzen dut, hilabetean 60 eurotan, Pablo Mutiozabal 2. zenbakian. Telefonoa: 688 655 218.

LANA

ESKAINITZA

Usurbilgo ileapaindegi baterako langile bila dabilta. Esperientziarekin. 35 orduko lanaldia. 619 06 06 85

ESKARIA

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko

lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. 663 488 438

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ barne publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Inigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Erakusketa

Severiano Iglesias billabonatarren margo erakusketa ikusgai dago, apirilaren 14ra arte.

Antonio Mercero aretoa, astean zehar, 18:00etatik 21:00etara; asteburuetan, 12:00etatik 14:00etara.

ASTIGARRAGA Kontzertua

Lezoko Tomas Garbizu eta Astigarragako Norberto Almandoz Musika eskoletako taldeek kontzertua eskainiko dute.

Norberto Almandoz Musika eskola, 19:00etan.

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Azoka

Lore eta landareen VII. azokak plaza alaituko du. Haurrentzako tailerrak eta jokoak izango dira goiz osoan zehar.

Okendo plaza, 11:00etatik 14:30era.

LASARTE-ORIA Solasaldia

Iñigo Urrutia Libaronekin solasaldia antolatu du Gure Esku Dago ekimenak. Maider Galardi kazetariak zuzenduko du saioa.

Oriarte institutua Landaberri eraikina, 11:00etan.

HERNANI Txapelketa

Hernaniko txistulari gazteen XIV. Txapelketa jokatu dute.

Milagrosa, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30era.

USURBIL Urteurrena

Usurbilgo Kantu Taldeak 10. urtemuga festa antolatu du:

11:00etan, Ongietorria
hamaitakoa rekin,
Askatasuna plazan.

12:00etatik 14:00etara,
Kantujira Usurbilgo kaleetan,
Mikel Laboa plazatik abiatura.

14:00etan, Bazkaria Aginagako
Urdaira sagardotegian.

Erdigunea, 11:00etatik aurrera.

ANDOAIN Ikuskizuna

Basakabi udalekuetako gazteen abentura berriak ezagutuko dituzte etxeko txikiek eta gazteek *Go!azen 5.0* ikuskizunean. Sarrera, 7 euro. Bastero kulturunea, 17:00etan.



LASARTE-ORIA Jaialdia. Adinkidek erakunde ezagutzera emateko jaialdia antolatu du. Getariako Musika Bandak, Alboka Abesbatzak eta Lasarte-Oriako danborradak parte hartuko dute. Nazioarteko doinuak eta euskal doinu tradizionalak entzun ahalko dira emanaldian. Jaialdia hasi baino lehen Getariako Bandak herriko erdiguneko kaleak alaituko ditu haien abestiekin. Sarrera, 2 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata, 19:00etan.

USURBIL Hitzaldia

Oier Gonzalez Ateramiñeko kideak eta Xabier Aranburu *Xomorro* preso ohiak *Presoak eta sorkuntza* hitzaldia eskainiko dute.

Sutegi auditorioa, 19:00etan.

IGANDEA 31

LASARTE-ORIA Bulego ibiltaria

Lasarte-Oriako alkateak eta hainbat batzordeburuk herritarren proposamenak eta kexak jasoko dituzte Herritarren Bulego Ibiltarian. Okendo plaza, 11:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Bazkari solidarioa

Togoko hezkuntza proiektu bat babesteko bazkari solidarioa antolatu dute. Bazkariko tiketa, Ormazabal loradendan eskuratu daiteke 12 eurotan.

Arantzazuko Ama elizako aretoan, 14:00etan.

HERNANI Topaketa

Mugarik Gabeko Txuntxunero taldeak antolatuta, txistularien topaketa izango da.

Erdigunean, 10:00etatik aurrera.

ANDOAIN Bertsolaritza

Sahararen aldeko bertso saioa antolatu dute. Kantuan Ion Beloki, Unai Agirre, Alaia Martin, Unai Muñoa, Aitor Mendiluze eta

Maialen Lujanbio izango dira. Gai jartzaile lanetan, Unai Ormaetxea arituko da. Sarrera, 6 euro. Salgai Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats inprimategian.

Bastero kulturunea, 12:00etan.

USURBIL Omenaldia

Felix Sarasola sukaldariari omenaldia egingo diote bere lagunek.

Usurbilgo frontoia, 12:00etan.

ASTEARTEA 2

HERNANI Antzerki zikloa

Tartean Teatroak *Ghero* lana antzeztuko du. Euskararen biziraupen harrigarriari buruzko kondaira da lana. Sarrera, 7,5 euro.

Biteri kultur etxea, 20:00etan.

ASTEAZKENA 3

HERNANI Antzerki zikloa

Espacio disponible antzezlana eskainiko du Perigallo Teatro taldeak. Sarrera, 7,5 euro.

Biteri kultur etxea, 20:00etan.

OSTEGUNA 4

HERNANI Antzerki zikloa

Vaiven produkzioak-ek malkoak eta irriak baimenik gabe nahasten dituen *Erlauntza* komedia mikatza oholtzaratuko du. Sarrera, 7,5 euro.

Biteri kultur etxea, 20:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Dantza

Ostirala: 22:00.

Mirai, mi

hermana pequeña
Igandea: 17:00.

Dantza

Igandea: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

70 Binladens

Igandea: 19:30.

Astelehena: 22:00.

USURBIL

SUTEGI

Gure

oroitzapenak

Igandea: 18:30

USURBIL

URBIL

Dumbo

Ostirala:
16:30, 17:00,
18:00, 19:15,
20:30, 21:45,
23:00, 00:10.

Larunbata:

16:30, 17:00,
18:00, 19:15,
20:30, 21:45,
23:00, 00:10.

Igandea:

16:30, 17:00,
18:00, 19:15,
20:30, 21:45.

¿Qué te juegas?

Ostirala: 15:45,

18:10, 20:25,

22:40, 00:50.

Larunbata: 15:45,

18:10, 20:25,

22:40, 00:50.

Igandea:

15:45, 18:10,

20:25, 22:40.

Dolor y gloria

Ostirala: 17:15,

19:45, 22:15.

Larunbata: 17:15,

19:45, 22:15.

Igandea: 17:15,

19:45, 22:15.

Nosotros

Ostirala:

19:30, 20:05,

22:35, 01:00.

Larunbata:

19:30, 20:05,

22:35, 01:00.

Igandea: 19:30,

20:05, 22:35.

Capitana Marvel

Ostirala:

16:15, 19:00,

22:00, 00:50.

Larunbata:

16:15, 19:00,

22:00, 00:50.

Igandea: 16:15,

19:00, 22:00.

Taxi a Gibraltar

Ostirala:

15:55, 00:40.

Larunbata:

15:55, 00:40.

Igandea:

15:55, 22:55.

Escape Room

Ostirala: 15:45,

17:55, 20:35,

22:45, 00:45.

Larunbata: 15:45,

17:55, 20:35,

22:45, 00:45.

Igandea:

15:45, 17:55,

20:35, 22:45.

Mula

Ostirala: 15:50,

22:10, 00:45.

Larunbata: 15:50,

22:10, 00:45.

Igandea:

15:50, 22:10.

Cómo entrenar a tu dragón 3

Ostirala: 18:20.

Larunbata: 18:20.

Igandea: 18:20.



LABURPENA

Dantza

Zuzendaria eta gidoilaria: Telmo Esnal. **Herr:** Euskal Herria (2018). **Koreografoa:** Juan Antonio Urbeltz. **Musika:** Pascal Gaigne, Mikel Urbeltz, Marian Arregi. **Argazkia:** Javier Agirre Erauso. **Rol nagusiak:** Gari Otamendi, Amaia Irigoyen, Ainara Ranera, Joseba Astarbe, Josu Garate. **Iraupena:** 98 minutu.

Bizitzaren zikloa, dantzaren bitartez

Dantza filma ikusi ahalko da asteburu honetan Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian. 66. Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean lehiaketatik kanpo aurkeztu zuten filma. 2017an zehar Euskal Herriko leku ezberdinetan grabatutako filma da eta dantza talde ugari parte hartu zuten grabaketan, Lasarte-Oriako Erketz EDT, horien artean. Juan Antonio Urbeltzen koreografiak eta Javier Agirreraren irudiek bizitzaren zikloari buruzko istorio honi bizitza ematen diote.

Dantza filmak bizirik irauteko borroka du oinarri. Horretan,

denboraren iragatea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza. Musikak eguneroko zereginei lagunduko die. Bizitza erritmoa baita.

Gaur, ostirala, Okendo Zinema taldearen eskutik, Telmo Esnal zuzendariarekin eta filmean parte hartu zuten Erketz EDTko kideekin solasaldia izango dute. Proiektuaren nondik norakoak, zailtasunak... ikusleek ere haien galderak egin ahalko dituzte. Eta Manuel Lekuonara hurbildu ezin direnek igandean filmaz gozatzeko aukera berri bat izango dute.



GREMIOEN GIDA 2019

Arreta profesionalena, zugandik gertu



Kristaldegi eta leihoak



Barne-Diseinua



ISU
27. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

DEL ORIA KRISTALDEGIA

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra



Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria
Tif.: 943 36 23 52 607234522
www.cristaleriadeloria.com

ANORGA TXIBI S.L. KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK



Iturgintza



Igeltseritza



Elektrizitatea

ILLARRETA
ITURGINTZA
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigarraga
info@illarreta.com

ANTONIO ARREGUI, S.L. **eraikuntza materialak**
GAMMA

- Eraikuntza materialak orokorrean
- Zeramika
- Sanitarioak
- Komuneko konplementuak

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA **ERAKUSKETA**
Oria Etorbidea, 6 Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73 Tel.: 943 36 59 47
aarreguisl@ya.com Faxa: 943 36 59 47

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)

Hurrengo
GREMIOEN GIDA
maiatzaren 3an

Bertan parte hartzeko:

943 37 14 48 (106)

646 82 44 66

publizitatea@ttakun.eus